

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Behin betiko onestea 2019 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari loturiko lanpostuen zerrendako aldaketa**

2019ko lanpostuen zerrenda aldatzeko espedientea jendaurrean egun da, 15 laneguneko epean, 2019ko martxoaren 18ko 33 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen egunaren hurrengo lanegunetik aurrera zenbatzen hasita (0706. iragarkia).

Ez da hasiera batean onesteko akordioaren aurkako erreklamaziorik edo oharrik egin; ondorioz, aldaketa behin betiko onetsi da.

Tokiko Araubideari buruzko lege-xedapenak jasotzen dituen testu bateginaren 127. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lanpostuen zerrenda egokitua argitaratu da. Hau da edukia:

Lanpostua: administraria; kategoria profesionala: administraria; taldea: C; azpitaldea: C1; maila: 16; titulazioa: EPOEren 76. artikulua eskatutakoa; Probisioa: EPOEren 78. artikulua; hizkuntza-eskakizuna: 2 (derrigortasun-data: 2022/12/31); postuaren kodea: AG/ADAG/AD/C1/22/2XX/2.

Lanpostua: administraria; kategoria profesionala: administraria; taldea: C; azpitaldea: C1; maila: 22; 350 euroko osagarri berezia (lantoki-osagarriaren zenbatekoaren % 66), postuaren funtzioen eraginez esleitutako erantzukizun tekniko eta dedikazio berezia dela eta; titulazioa: EPOEren 76. artikulua eskatutakoa; Probisioa: EPOEren 78. artikulua; hizkuntza-eskakizuna: 2 (derrigortasun-datarik ez); postuaren kodea: AG/ADIN/IT/C1/22/2XX/ 4.

Akordio horren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da, zuzenean, kasuan kasu egokitzen den Vitoria-Gasteizko Administrazio Auzietarako Epaitegian, akordioa argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, aurreko paragrafoan adierazi den administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Udal honetan akordioaren kontra, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean. Erreferentzia: Bo190412.

Oion, 2019ko apirilaren 12a

*Alkatea*

**EDUARDOTERROBA**